



Hau da aste honetako euskararen pilula!

"Interno"/"interna" euskaraz, nola?

Interno/interna > barneratu

Zigor arloan, espetxeetan eta antzekoetan preso izendatzeko erabiltzen da, eta, kasu horietan, "giltzaperatu"/"recluso" terminoaren sinonimotzat jo daiteke.

Horrela definitu zen 2015eko Zigor-arloa eta Espetxe-zaintza Hiztegian:

Zigor eta kautela-neurri askatasun-gabetzaileak betez, espetxean, ospitalean edo bestelako egoitza batean egotera behartuta dagoen pertsona.

ADIBIDE BATZUK

- "Notificación al **interno** de la Revisión de Grado" > "Gradu-berrikuspenari buruz **barneratu**ari egindako jakinarazpena"
- "Notifíquese esta resolución al M^o Fiscal, a la Dirección del Centro y al **interno**" > "Jakinaraz bekie ebazpen hau Fiskaltzari, espetxeko Zuzendaritzari eta **barneratu**ari"
- "El funcionario penitenciario o de centros de protección o corrección de menores que impusiere a los reclusos o **internos** sanciones o privaciones indebidas, o usare con ellos de un rigor innecesario, será castigado con la pena de inhabilitación especial para empleo o cargo público por tiempo de dos a seis años" > Espetxeko edo adingabeak babestu zein zuzentzeko zentroetako funtzionarioak giltzaperatu edo **barneratu**ei ezartzen badizkie bidegabeko zehapen edo gabetzeak, edo horiekin beharrezkoa ez den zorrotasuna erabiltzen badu, orduan, funtzionario horri enplegu edo kargu publikorako desgaitasuna berezia ezarriko zaio, bi urtetik sei artekoa"

ITURRIA

- [Epaitegietako lexikoa eta eredu judizialak](#)
- Epaibar
- [Euskalterm](#)